



45/2018 ALKATETZA DEKRETUA

Albizturren, 2018ko apirilaren 17a, eguerdiko hamabietan, udaletxeko bulego ofizialean, eta neronek, Leire Arteaga Zumeta, korporazioko idazkariak lagunduta, M^a Isabel Machinandiarena Arrospide bere gain hartu du lehendakaritza eta zera dio:

Ikusirik, urteroko moduan Albizturko udalak udaleku irekiak antolatuko dituela 3 urte 12 urte bitarteko haurrentzat.

Ikusirik bi begirale behar direla lan hori burutu ahal izateko.

Kontuan harturik udal honek ez duela inolako lan poltsarik lanpostu horiek betetzeko.

Kontuan harturik formazioa burutu behar dutela langile hauek eta ekainaren 22an burutuko dela, eta kontratazioa burutu ahal izateko epe laburretan gabiltzala, eta ohiko administrazio jakinarazpen moduak epez luzatzen direla.

Indarrean dagoen Toki Araubidea arautzen duen legediak alkatetzari ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

ERABAKI DUT

Lehena.- Albizturko Udalak antolatutako udaleku irekietan lan egiteko 2 begiraleren kontratazio espediente onartzea. Ondorengo baldintzekin:

Baldintzak:

- Lan kontratu datak: 2018ko EKAINAREN 22tik UZTAILAREN 16ra biak barne.
- 18 urte beteta edukitzea
- BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIOA
 - Euskara egoki menperatzea. PL 2a gutxienez izatea. Honela ez bada burutuko den elkarrizketan frogatu beharko du menperatze maila.
 - Herriaren ezagutza baloratuko da.
 - 2 puntu gehienez. Elkarrizketa bidez baloratuko da.
 - Begirale ikasketak edota hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak.
 - Begirale ikastaroa izatea: 3 puntu
 - Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak: 2 puntu.
 - Eskarmentua izatea.
 - Udaleku ekitaldi bakoitzeko puntu bat. Gehienez 5 puntu

Bigarrena.- Udal iragarki taulan, udal web orrian eta lanbiden honen berri ematea, lanbide bidez bidali beharko direlarik eskaerak, izen emateko epea maiatzaren 11a bitartekoa izango delarik.



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

2018IPOL0027

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak honen aurka, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko alkatetza honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Guztiaren berri emanez, nik, idazkariak fede ematen dut, goian adierazitako egun eta lekuan, eta nirekin batera, adostasunaren adierazgarri, alkate-lehendakari andreak izenpetu du.



Mª Isabel Machinandiarena Arrospeide
Lehendakaria

Leire Arteaga Zumeta
Idazkari Kontu-hartzailea